

# GOAZEN MARKIÑARA

**MARCHA COMPUESTA POR D. FELIX ORTIZ Y SAN PELAYO**

PARA EL **ORFEON EIBARRÉS** Y CANTADA EN LAS FIESTAS

EUSKARAS DE MARQUINA.

Goazen anayak Markiña aldera,  
Goazen guztiyok kantatzen;  
Begira nola Euskal-Erriyan  
Danak diraden poztutzen,  
Nola diraden alaitasunez  
Eta otsarez betetzen,  
Ikusirikan zer fest ederrak  
Markiñan diran ospatzen.

Goazen guztiok Euskal soñuak  
Kantaturikan gogotik,  
Euskaldun gauzak gure kantuz  
Odoyetara jasorik,  
Bizkaiako zelai, aitz ta mendiak  
Arkitzen dira mugirik  
Bere aurrean ikusten diran  
Fest ederrakin suturik

Goazen agudo Markiña aldera  
Entzun dezagun sansoa,  
Ikus dezagun Lekobideren  
Semeen izantz osoa;  
Goazen guztiyok aditutzero.  
Bersolariyen jokoak,  
Gure lurtean miragarriro  
Gorde dan jolas gozoa.

An ikusitzen diran gauz danak  
Dirade gure-gureak  
Ospatzen diran festa guztiyan  
Euskaltazunes beteak,  
Lekobideren erri gozoan  
Gizaldiyetan gordeak,  
Lur onetako seme danentzat  
Egyiaz guziz maiteak.

An entzuten da damboliña ta  
Jotzen dituzte chistuak;  
An, elurturik ille bizarrak,  
Dauzkaten gizon prestuak  
Dabiltza dantzan, aditurikan  
Euskaldun zarren soñuak  
Ikusirikan Euskal oiturak  
Feniz antzera piztuak.

Ala mendiyan dirurik gab  
Bizi diraden gizonak  
Nola jauregi galant batean  
Dirudun bizi diranak  
Chit atsegiñik kantatzen eta  
Dantzan dabiltza dan danak  
Fest oriyekin azturik beren  
Naigabe pena ta lanak

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

